

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



AHOBIZI

Ahobizi izatea erabaki duzu. 11 egunetan euskaraz egingo diezu euskara ulertzen duten guztiei. Ezezagunei, berriz, lehen hitzak euskaraz egingo dizkiezu eta euskara ulertzen badute, hurrengoak ere bai.



Ohiturak aldatuko ditugu

Posible da. Ariketa taldean egingo dugu, ez zara bakarrik egongo.



Ikurra eta hitza. Erakutsi zure hautua

11 egunez txapa agerian eraman eta lehen hitza beti euskaraz egin.



Aztertu zure ohiturak eta ekin euskarari

Aztertu norekin eta zertarako erabiltzen duzun euskara. Zabaldu ate berriak euskarari.



Zailtasunen aurrean ez etsi, eutsi!

Helburua lortu edo ez, saiatzea merezi du.



Baztertu aurreiritziak eta eutsi erabakiari

Aztertu nola gainditu zure aurreiritziak. Euskara ezustekoz beterik dago.

Azaldu ingurukoei zein erabaki hartu duzun

Gertukoek zer egingo duzun jakiteak lagundu egingo dizu.



Adostu ariketa ingurukoekin

Hurbilekoekin hasi eta ekin inertzia apurtzeari. Gonbidatu lagunak ariketan parte hartzera.



Elkartrukatu esperientziak beste partehartzaileekin

Jaso zure bizipenak eta partekatu gainontzeko belarriprest eta ahobiziekin.



Elkarriketa elebidunetan, euskaraz

Desoreka egoeretan euskara nagusi izatea posible da.



Aurkeztu Euskaraldia ezagutzen ez dutenei

Azaldu zure hautua eta ahobizi jokatu, ez da bestelako justifikaziorik behar.



Eutsi euskarari!

Ekin (lehen hitza euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean)

